

Kultur agenda

Gobernuko Ondare Historikoaren kidea. Arantzadi zientzia elkartearen egoitzan (Zorroaga gaina), 19.30etan.

Kontzertua

- Neight Weight taldearen kontzertua. Trintxerpeko Mogambo aretoan (Azkuene kalea), 21.00etan.

Dantza

- Euskal koreografo gazteen erakustaldia. Egiako Gazteszena aretoan, 20.00etan.

Ostirala **23**

Antzerkia

- "La tienda de los horrores" antzezlan. Antzoki Zaharrean, 21.00etan.

Larunbata **24**

Antzerkia


- "La tienda de los horrores" antzezlan. Antzoki Zaharrean, 20.00 eta 22.30etan.

Igandea **25**

Antzerkia

- "La tienda de los horrores" antzezlan. Antzoki Zaharrean, 20.00etan.


LEHIAKETA



Gogoan izango duzue, Elkarlanean argitaletxeak plazaratutako Jon Arretxe idazlearen "Zazpi kolore" nobelaren bi ale genituen zozketatzeko. Arretxe zein herri-tan jaioa den esan behar zeniguten, eta gehienek asmatu duzue erantzuna: Basaurin jaio zen 1963an. Hona hemen zozketan irabazle suertatutako bi lagunak. Zorionak!
-Ahinitz Gerrikagoitia.
-Mireia Mochales.

Arkeologia aztergai

Arantzadi zientzia elkarteak arkeologia jardunaldiak antolatu ditu. Elkartearen egoitzan 19.30etan emango diren hitzaldiotan Goi Paleolitikoa izango da mintzagai. Hona hemen hitzaldien zerrenda:



EGUNA	HITZALDIA
Martxoak 22	"Los cascajos y Paternabide. Poblados neolíticos al aire libre en Navarra"
Martxoak 29	"Civilización versus barbarie hacia un nuevo concepto de Romanización en el norte peninsular: los datos arqueológicos"
Apirilak 5	"De vascones, francos y visigodos: algunas cuestiones arqueológicas sobre la transición entre la Antigüedad y el Medioevo en el País Vasco"
Apirilak 10	"Zeramikaren teknologia Euskal Herriko Protohistorian"

Asgarth eta Lisabo Korrika Kulturalean

Hilaren 17an, larunbata, Lisabo eta Asgarth taldeek kontzertua emango dute Alzako Auzo Etxean. Korrika Kulturalean barruan antolatutako ekitaldia 22.00etan hasiko da.



Kultur ondarea eta gizartea eztabaidagai

Datozen egunotan "Kultur ondareari eta gizarteari buruzko II. topaketak" egingo dira Deustuko unibertsitatearen campusean. Martxoaren 21ean, 18.30etan, Historiaren irakaskuntzaz mahaingurua egingo da. Bertan Lola Valverde EHUKo historia irakaslea, Joseba Alkiza Aita Barandiaran Lizeoko historia irakaslea eta Juan Angel España, Espainiako Hezkuntza Ministerioko zuzendari orokorra ariko dira. Martxoaren 22an Odon Elorzak "Donostia, los proyectos culturales del siglo XXI" hitzaldia emango du leku eta ordu berean.

